

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINТZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

28. astea (2026ko uztailaren 6tik 12ra)


Gripearen eta bronkiolitisaren tasak oinarritzko mailan (inter epidemikoa) mantentzen dira. COVID-19aren tasak baxua izaten jarraitzen du.

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 91,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (109,6/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen, bronkiolitisaren eta COVID-19aren tasak baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 7 lagin jagoleen % 71,4 baieztatu da eta ez da SARS-CoV-2rik, gripe-birusik ala ABSik atzeman.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 7,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (7,5/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA- eta bronkiolitis- (< 2 urte) tasak eta larrialdietako gripe-sindromearen tasa oinarritzko intentsitate mailan (balio inter epidemikoa) mantentzen dira.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 5 SARS-CoV-2 eta 2 ABS erregistratu dira eta ez da gripe-birusik atzeman.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikoko jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 91,8 kasukoa izan da (109,6/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 54,9/100.000 izan da Araban, 93,0/100.000 Bizkaian eta 106,9/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 776,9 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 471,3 eta 125,1 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 24,4 kasukoa izan da (29,2/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) intzidentziari dagokionez, tasak ESI gehienetan jaisten dira.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 28. astea	Tasa 27. astea
Arabako ESI	56,4	67,1
Barakaldo-Sestaoko ESI	77	107,6
Barrualde-Galdakaoko ESI	96,3	116,6
Bidasoako ESI	96,3	104
Bilbo-Basurtuko ESI	105,3	135,6
Debararrenako ESI	104,5	115,6
Debagoienako ESI	89,9	96,1
Donostialdeako ESI	98,2	117,1
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	81,7	112,1
Goierri-Urola Garaia ESI	132,6	128,5
Arabar Errioxako ESI	178,3	135,9
Tolosaldeako ESI	120,5	117,4
Uribeko ESI	79,4	93,5

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasa 0,3 kasukoa da 100.000 biztanleko (0,4/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) 46,9 kasura jaitsi da 100.000 biztanleko (aurreko astean 50,5/100.000), eta COVID-19aren tasa 0,1 kasutan mantentzen da 100.000 biztanleko (aurreko astean ere 0,1/100.000).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIarako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 7 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 71,4 baieztatu dira. Ez da SARS-CoV-2rik, gripe-birusik ala ABSik atzeman, baina bai 2 metaneumobirus.

AIA intzidentzia-tasa LMAn eta sare jagoleen detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



SARS-CoV-2aren positibotasuna, gripe-birusarena eta ABSarena % 0,0an mantentzen dira aste honetan, aurreko astean bezala.


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE

	28. astea		27. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	0	0,0	383	23,8
SARS-CoV-2	0	0,0	0	0,0	25	1,6
ABS	0	0,0	0	0,0	99	6,2
Metaneumobirus	2	28,6	0	0,0	69	4,3
Parainfluenza	1	14,3	0	0,0	68	4,2
Adenobirus	1	14,3	2	25,0	37	2,3
Errinobirus	1	14,3	3	37,5	316	19,7
Urtaroko CoV	0	0,0	1	12,5	97	6,0
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	24	1,5

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 7,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (7,5 /100.000 aurreko astean).




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen eman da 100.000 biztanleko 22,7 kasurekin, ondoren urte batetik beherakoen adin-taldean eta 45-64 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 7,3 eta 5,5 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



COVID-19aren kodearekin (U07.1), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 eta J21.0) eta gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutakoa ospitaleratze-tasa 100.000 biztanleko 0,0koa izaten jarraitzen du.

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren eta ABSaren positibotasuna %0,0an mantendu da aste honetan (%0,0 aurreko astean) eta gripe-birusaren positibotasuna, berriz, %0,0koa izan da (%1,3 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	28. astea		27. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	91	0,0	77	0,0	9164	1,4
Influenza	85	0,0	75	1,3	9309	18,0
ABS	78	0,0	60	0,0	8375	13,1

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoen arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akuatuak (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbatesteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIaren zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gainditu da, 2026/08 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz. Epidemian intentsitate maila baxuko gailurra neurtu da.


**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Gripe-sindromearen, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuen arabera, atalase epidemikoa 2025/42 astean gaingitu da, 2026/05 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz. Kasu honetan, epidemiaren intentsitatea maila alturaino heldu da.


**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Azkenik, 2 urtetik beherakoen lehen mailako arretako bronkiolitisaren diagnostikoei dagokienez, atalase epidemikoa 2025/48 astean gaingitu da, 2026/05 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz. Epidemian, intentsitatea ez da maila baxutik pasa.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan, 5 SARS-CoV-2 eta 2 ABS erregistratu dira eta ez da gripe-birusik atzeman.

2025/40 astetik 8780 detekzio erregistratu dira, 8724 (% 99,4) A motakoak eta 56 (% 0,6) B motakoak. Azpitipatutako A motako 4653 birusetatik, 2764 (% 59,4) A(H3) eta 1889 (% 40,6) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2026ko uztailak 15

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza